

noaua

Orbeldik dantza ikuskizun irekia iragarri du apirilaren 24rako

‘Apelliduak abizendu’ kanpaina: “Prozesua bake epaitegian hasten da”

Larunbat honetan ospatuko da Mundualdia



Landetxeak eta hotelak, bisitariak hartzeko prest

Usurbilen,
zure auto-tailerra

Etorki Ramon



Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
DOHAINIK IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua



EuroTaller

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura
-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, ERENOTZU-HERNANI
Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867



Papera eta ontzi arinak
atez ate biltzeko poltsak:
eska itzazu udaletxean!

900 776 776 atezate@usurbil.eus  606 501 024



Albisteak iruditan

LH6ko ikasleak: “Mila esker parte hartzeagatik”

LH6ko ikasleak esnea biltzen ari-tu ziren duela bi aste. Elkartasun kanpainak arrakasta handia izan zuen eta eskerrak eman nahi dizkiete martxoaren 10, 11 eta 12an burutu zuten ekimenean parte hartu zuten herritar guztiei.

“Esne bilketa Haur Eskolan, DBHko eraikinean eta Agerialdeko patioan egin zen. Guztira 1.700 litro jaso genituen eta Zaporeak elkarteko arroparen salmentan 3.200 euro lortu ziren”, LH6ko ikasleen hitzak dira hauek.



“Guztira 1.700 litro jaso genituen eta Zaporeak elkarteko arroparen salmentan 3.200 euro lortu ziren”.

Laburrean

Eremu horira itzuli da Usurbil

Astelehenean 5 Covid-19 kasu hauteman zituzten Usurbilen. Aspaldiko daturik txarrena. Intzidentzia-tasa 158,53raino igo da (Gipuzkoan, tasa hori 208,76koa zen astelehenean). ZIU geletan daudenen kopurua aldiz, jaisten ari da.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. “PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik”, eskatzen du Udalak.

Peña Pagola elkarteak, lokal baten bila

Peña Pagola elkarteak Kalezarren dago. Aldameneko lokal bat erabiltzen zuten biltegi moduan. Lokal hori utzi beharrean daude orain, eta biltegi berri baten premian dira. Kalezarren lokal hutsen bat duenak deitu dezala hona: 610 478 138.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia






Alazne Arruti

Duela urte batzuk, koskortzen hasia nintzela, Donostiako nanoGUNE ondotik pasatzean, bertan lan egitea gustatuko litzaidakeela pentsatzen nuen. Bitxia eta txundigarria iruditzen zitzaidan, gauzak horren xehatuta aztertzeo aukera izatea. Izan ere, nano Nazioarteko Unitate Sistematan 10^{-9} faktore bat adierazten duen aurrikizki bat da, eta antza, grezierazko *vávoç* hitzetik dator, “guztiz txikia” den oro deskribatzeko ahaleginaz.

Garai hartan ez nekien askorik zientziatz. Noizean behin telebistan ikusten nituen zientzialariak jardunean, Teknopolis telebista-saioaren atalen batean, edota kasualitatez, interesa pizten zidan dokumentalen batek harraipatzen ninduen. Zientzia ezezaguna zitzaidan ordea, bata zuri batez jantzi eta teleskopioak baliatzeko aitzakia erakargarri bat.

Gerora izan ditut hainbat entretenimendu bide. Liburuak eta literatura, kirola, artea, natura, animaliak, harremanak... Bai eta ikasketetan lantzen genituen materia zientifikoek elikatzen zuten jakin-mina ere. Eta erabaki potolo samarra izanagatik, gutxien ezagutzen nuen azken hori asetzea erabaki nuen goi mailako ikasketekin.

Landa ditzagun kuleroak



“Landa ezazu zure slip-a erronka abiarazi dute Frantzian. Mapa interaktibo bat jarri dute martxan, eta ekimenaren hedapena ikusi daiteke bertan”.

ESPERIMENTUA

“Bi hilabete inguruko lurperatzearen ostean, jantziak berreskuratu eta jasandako deskonposizio motak aztertu dituzte”

Dena den, askotan pentsatu izan dut, eskolan ikasgaiak zein modutan uztartu behar liratekeen. Edo hobe esanda, garai hartako bidean hutsunerik sumatu ote nuen erabakiak hartzerako orduan. Eta azkenean, hezkuntzako langileen arduraz pentsatzen amaitzen dut. Nola piztu zaletasunak umeengan? Nola zabaldu atea euren bizitzetan sortu dezaketen irudimenari? Nola lagundu etorkizunean beharko dituzten tresna horiek eraikitzen? Eta erantzunak baino, galderak besterik ez ditudanez, honaxe, garai hartan zientziara gerturatuaz gauzatzea gustatuko litzaidakeen ariketa bat ekartzea

otu zait.

Esperimentu honen helburua, lur gramo eskas batzuetan bizi diren hamar miliar inguru organismoek gauzatzen duten funtsezko lana ezagutzeta da. Zer baliabide behar diren horretarako? Bada, ez da beharrezkoa laborategi itxi batera joatea. Eta honexegatik agian, ariketa hau egungo egoerara primeran egokitzen dela esan daiteke. Izan ere, aski da lorategiko espazio bat baliatzea. Edota, pandemia garaian honen falta sumatu dutenentzat aldiz, nahikoa litzateke loreontzi bat izatea.

Bizidun ñimiñoook, kate isil eta eraginkor bat osatzen dute, gizakion jardun inbaditzaileari eta honek sortzen duen estresari aurre egitera behartuak dauden bitartean. Intsektu edo zizareak, materia organikoa birrintzen dute batez ere, eta onddo edo bakterioek aldiz, deskonposizio bidez askatzen dituzte elikagaiak. Beraz guk,

belardiak lasai eta zabal zantpatzen ditugun bakoitzean, lurpeko bizitza basa lanean ari da etengabe. Nola gerturatu gintezke mundu honetara?

Bada, Peggy Doyhenart irakaslearen testigantza jaso du ‘Mediabask’-ek, zeinak Errecart Lizeoan, bere ikasleekin batera kolore zuriko kulero edo galtzontziloak lurperatu dituen, baratza, lorategi zein loreontzietako lurretan. Bi hilabete inguruko lurperatzearen ostean, jantziak berreskuratu eta euren artean eman diren deskonposizio motak aztertu dituzte, kasu bakoitzean erabili den luraren egoeraz jabetuaz.

Ekimen hau baina, Frantziako Trantsizio Ekologikoko Agentziak (Ademe), “Landa ezazu zure slip-a” izenpean proposaturiko erronka da, izan ere Lur planetako lurren %60a gogorki degradatua dagoela eta urtero hiri hedapenaren ondorioaz 11 hektarea inguru galtzen direla ohartarazi du. Erronka hau irudikatzeo gainera, mapa interaktibo bat jarri dute martxan, eta pixkanaka ekimenaren hedapena ikusi daiteke bertan. Bizi dugun lurzoru eta inguru honen zaintza uztartzeko, aukera bikaina izan daiteke. Beraz, zergatik ez hasi kuleroak landatzen?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhua Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Ika-mika

Iraunkortasun-faktorea: gehiago bizi bagara, okerrago biziko zara

Erreforma horien elementurik suntsitzailenetako bat iraunkortasun-faktorea da, ez baitute, dioten bezala, pentsioen sistema publikoa defendatzen, baizik eta pixkanaka pentsio pobreen sistema publikoa bilakatu. Aurreritzi honetan oinarritzen da: pentsioa kobratzen den batez besteko denbora handitzen bada, hileko pentsioa bizi-itxaropena murriztu beharko da.

Doikuntza automatikoko sistema bat da, 2019rako aurreikusita zegoena, eta mobilizazioaren ondorioz atzeratu zen, 2023ra arte. Hasierako pentsioa murrizten du bizi-itxaropenak gora egiten badu; horrela, pentsiodunei erretiroaren osteko batez bes-

teko bizi-itxaropenaren igoera ordainaraztea da iraunkortasun-faktorearen funtzioa.

Horretarako 67 urterekin batez besteko bizi-itxaropenaren arabera kalkulatu da, 5 urteko aldietan, eta hasierako erretiro-pentsioei aplikatzen zaie. Edonola ere, Estatistika Institutu Nazionalak bizi-itxaropenari buruz egindako aurreikuspenak mantenduko balira, jasangarritasun-faktorea aplikatzeak pentsioak murriztea ekarriko luke 2049an, %9 eta %18 artekoa izango litzatekeena.

Oso proiektu bidegabea da eta kontuan hartu beharreko baldintzatzailea, eta, gainera, desberdintasuna sortzen duena; izan ere, gizarte-tarte aberatsenetako bizi-itxaropena

diru-sarrera gutxiagoko tartetako baina askoz handiagoa da, eta eragile horrekin ez dituzten bizi-itxaropenak baliatuzte bezala tratatuko lirateke.

Murrizketa honen helburua pentsioa jaistea da, elite ekonomiko eta politikoei baliabideak handitzeko dituzten planen esparruan, betiko zenkeria itsuarekin jarraitzen baitute: “euroa ikusten dut, euroa nahi dut”, eta horrela ongizate soziala murriztea. Era berean, oraindik erretiroa urrun ikusten dutenei eta aurrezteko nolabaiteko gaitasuna dutenei pentsio-funts pribatueta jotzeko pizgarriak eman nahi dizkiete.

Gogoan izan behar dugu jasangarritasun-faktorea apli-

katzeak pentsioen sistema publikoa ahultzen duela, etorkizuneko pentsiodunak pobretzen dituela eta pentsio pribatuak bultzatzen dituela. Erreforma horrekin biztanleriaren gehiengoak galtzen dugu, erretiroa iristean pentsio publikoarekin nahikoa euskarri ekonomikoa izatea baita kontua. Pentsioa iraunkortasun-faktorearekin zeharo mugatzeak pobrezia eta desberdintasuna areagotuko ditu.

Hori dela eta, borroka jarraituko dugu 2011ko eta 2013ko pentsioen erreformak indargabetzeko, besteak beste, jasangarritasun-faktorearen erreforma. Pentsioak aurrera!

AEPB pentsionista taldea.

Ika-mika

Aberri Eguna 2021: Keinu bat batera

Iazko udaberrian ez genuen pentsatuko urtebete geroago oraindik pandemia borrokatzen ariutako ginenik. Baina hemen jarraitzen dugu, lehentasunez gaitzari aurre egiten eta, aldi berean, larrialdi luze honek izango dituen ondorio sozial eta ekonomikoen beldur. Ezer baino lehen, agiri honen sinatzaileok gure maitasuna helarazi nahi diegu egoeraren aurpegiarik beltzena pairatu dutenei eta denon zaintzan borroka luzea daramatenei. Sinetsita gaude komunitatea trinkotuta gai izango garela aurrera egiteko.

Izan ere, 2020ko Aberri Egun bereziak erakutsi zuen Euskal Herrian ere posible dela bateratasuna. Aski izan zen herritar

talde txiki batek aukera eskaintzea, Euskal Herri osoan milaka herritarrek keinu bat batera egiteko, eta hainbat gizarte eragile, alderdi eta sindikatu ere ekimenarekin bateratzeko.

Mundu zabalean komunitarismoa ari da indartzen globalizazioaren arriskuei aurre egiteko; lurraldeak eta haien gainean trinkotzen diren komunitateak dira tresnarik egokiena pertsonen bizitza duina eta eskubide berdintasuna bermatzeko. Nahi genuke Euskal Herria izatea halako komunitate bat, erabakimena eta eskubide politiko guztiak dituen, osatzen dugun kideoi duintasuna eta bermeak eskaini ahal izateko.

Bateratasuna areagotuko

duen herrigintza behar du Euskal Herriak, etorkizuneko proiektu politikoen oinarria izango den komunitatea trinkotzeko. Herrigintza horretan erabili beharko dugu eztabaida demokratikoa beti, konfrontazioa behar denean eta lankidetzan ahal den guztietan, herritarren, eragileen eta erakundeen indarrak norabide bateratuan jartzeko. Agiri honen sinatzaileok gure esku dagoena egingo dugu bide horretan aitzinatuko gaituen dinamika sortzeko, eta Euskal Herri bateratua iruditatzeko duten ikur, ereserki eta ekintzak sustatzeko.

2021eko Aberri Egunari begira, ez dakigu oraindik ea aukerarik izango ote den kalean egi-

teko. Guk, egoera edozein dela ere, keinu bat batera egitea proposatzen diegu euskal herritarrei, eragileei, alderdiei eta sindikatuei: apirilaren 4an kantuan egitea, denok batera Euskal Herri osoan, 12:30ean igorriko dugun seinalea jarraituz (xehe-tasunak www.aberrieguna2021.eus webgunean).

Herrigintzan batera jardunda garatuko baitugu euskal lurraldeen eta herritarren arteko lankidetzan, gero eta indartsuago izango den komunitatearen eraginez lor dezan Euskal Herriak erabakimen osoa.

Gora Euskal Herri burujabea!

Euskal Herria Batera ekimena, talde sustatzailea.



Kale Nagusia trafikoari moztuta egongo da martxoaren 29tik 31ra

Oinezkoei lehenetasuna eman asmoz, Udalak Zumarte Musika Eskola pareko espaloia eta errepide berregokituko ditu. Lanek trafikoan eta autobus garraioan eragingo dutenez, Udaltzaingoak ohar hau plazaratu du:

“Datorren astelehenetik asteazkenera, martxoaren 29, 30 eta 31n, errepidean egin behar dituzten obra batzuk direla eta Kale Nagusia trafikoari moztuta egongo da Zumarte Musika Eskolaren parean.

Mozketa honek trafikoan zenbait aldaketa eragingo ditu:

■ Kale Nagusitik datozen ibil-



Zumarte Musika Eskola pareko obra batzuegatik moztuko dute trafikoa.

gailuak udaletxe atzetik San Inazio kalera bideratuko dira.

■ Donostia-Zumaia autobusa, San Inazioko errotondan geldituko da.

■ Hernani-Zubietatik datorren

autobusa Bordatzoko errotondan geldituko da.

Herritarrak jakinaren gainean jarritz, ahalik eta eragozpen gutxien sortzea espero dugu”.

Zaldibarko hondamendiari buruzko hitzaldia antolatu du Anerrekak

Ahoztar Zelaieta kazetariak Zaldibarko zabortearen hondamendiari buruzko ikerketa plazaratu du: *Zaldibar. Zona cero* (Txalaparta). Martxoaren 25ean Sutegin izango da eta liburuari buruzko xehetasunak eskainiko ditu. 18:30ean hasiko da hitzaldia.

Zaldibar. Zona cero (Txalaparta) hilabeteetako ikerketalanaren emaitza da eta “zabortearen inguruko influentzia-trafikoa, kontrol eta bigilantzia falta, espekulazio urbanistikoa eta beste hainbat



Ahoztar Zelaieta kazetariak *Zaldibar. Zona Cero* liburua plazaratu du.

gai lantzen ditu bertan”, argitaletxeak aditzera eman duenez.

Ahoztar Zelaieta kazetaria Sutegin izango da martxoaren

25an osteguna. Anerrekak elkarteak antolatu duen hitzaldia arratsaldeko 18:30ean hasiko da.

Ontzi arinak eta papera biltzeko poltsak aldeztu aurretik eskatu behar dira

Udalak doan banatzen ditu poltsak baina interesa duenak eskatu egin beharko du.

Telefonoz, whatsapp bidez edo email bat idatziz

Eskaera hiru modutan egin daiteke:

■ 900 776 776 telefono zenbakira deituz.

■ Whatsapp mezu bat bidaliz hona: 606 501 024.

■ Atezate@usurbil.eus email helbidera idatzita.

Astelehenetan egiten da poltsen banaketa

Martxoaren 1ean hasi ziren poltsak banatzen. “Nork bere zintzilikailuan aurkituko ditu poltsak, bere identifikazio txartel eta guzti”, Ibon Goikoetxeak argitu zuenez. Astelehenera, aurreko aste osoan jasotako eskaerei erantzunez.

Etxebizitza bakoitzeko, poltsa bana

Etxebizitza bakoitzari ontzi arinak eta papera zein kartoia biltzeko poltsa bana emango zaio. Ez gehiago.



Astelehenera egiten da banaketa, astelehenetan.


EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182


JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008


Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus



URDAIRA

Sagardotegia

**OSTEGUN, OSTIRAL,
LARUNBAT ETA
IGANDETAN irekita**

osasun neurri guztiekin
ERRESERBA EZAZU!

Aginaga 943 37 26 91



Freskagarri Naturala!

Sagardo berriak dasta
ditzakezue segurtasunez
gure sagardotegian!

SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

Sagardotegia

osasun neurri guztiekin

943 36 67 10

info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com



%100 bertako sagarra

**OSTIRAL, LARUNBAT
ETA IGANDETAN IREKITA
(ERRESERBAREKIN)**

osasun neurri guztiekin

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*

**AIALDE
BERRI**

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

“Prozesua bake epaitegietan hasten da”

Buruntzaldeko herrietan ere posible da abizenak euskalduntzea. Prozesuari ekin nahi dioten biztanleek euren bizitokiko bake epaitegietara joan behar dute.

Apelliduak abizendu nahi dituzten pertsonak, bizi diren herriko bake epaitegira joan behar dute. Lasarte-Oriakoan, besteak beste, Alberto Agirrezabalak egiten du lan. Hark azaldu ditu abizenak euskaldundu nahi dituztenek jarraitu behar dituzten urratsak.

Bake epaitegira dokumentazioa eraman behar dut abizenak euskal grafiaz idazteko prozesuari ekiteko?

Beharrezkoak dira NANaren kopia, eroldaren ziurtagiria eta jaiotzaren hitzez hitzeko agiria. Ezkonduta egonez gero, horren ziurtagiria behar da, eta, seme-alabak edukiz gero, haien jaiotza-ziurtagiriak.

Nire deiturrekin batera, seme-alabek ere aldatzen dira?

18 urte baino gutxiago dituzten seme-alabei eragiten die gurasoen abizenak euskalduntzeak. Kasu horretan, biak etorri behar dira bake epaitegira, deiturak euskal grafia ekarri nahi dituen eta bestea ere bai,



Alberto Agirrezabala, Lasarte-Oriako bake epaitegiko bulegoan.

‘APELLIDUAK ABIZENDU’

“Abizenak euskalduntzeko tramitea doakoa da, erregistroko guztiak bezala”

haren baimena behar delako.

Ordaindu egin beharko dut abizenak euskalduntzeagatik?

Ez. Erregistro zibileko tramite guztiak doakoak dira.

Abizenak ez ezik, izena ere euskal grafiara ekar dezaket?

Bai. Legeak horretarako aukera ematen du. Prozedura berdina da, eta ekarri beharreko dokumentazioa ere bai.

Erraza da izen-deiturak eus-

kalduntzea? Zenbat denbora iraun dezake prozesuak?

Erraza da, bai. Eskaera egiten da gure epaitegian, eta Donostiako erregistro zibilera bidaltzen dugu, haiek erabakia hartzeko. Onartzen bada, abizena euskaldundu duen pertsona horren jaiotzaren inskripzioan jaso behar da, baita ezkontzaren eta seme-alaben inskripzioen alboan ere. Jaiotzaren inskripzioa Donostian bertan egonez gero, hamar bat egunetan eginga dago. Beste herriren batean badago, denbora pixka bat gehiago behar da, baina, normalean, lau bat astean eginga dago.

Nire abizenen grafia aldatu eta gero, lehengoarekin eginak

dauden agiriak (NAN, gidabaimena, titulu akademikoak...) berri behar ditut?

Bai, berriro egin behar dira, abizena aldatu egin baita. Aurrena, NAN agiria eta errola, eta gero, beste guztiak.

Noiztik dute herritarrek abizenak euskalduntzeko aukera?

Abizenak euskalduntzeko prozesua 2000. urtean jarri zen martxan, 40/1999 legearen ondorioz.

Zer eredu jarraitzen da izen-deiturak euskalduntzeko orduan?

Prozesu horretan oso garrantzitsua da Euskaltzaindiaren lana. Abizenak euskaratu nahi dituen pertsona batek Euskaltzaindiaren EODA Euskal Onomastikaren Datutegia (www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika) kontsultatu behar du, han azaltzen delako haren deiturak euskaraz nola idazten diren.

Apelliduak abizentzeko zenbat prozesu irekitzen dituzue urtean? Nolako da joera?

Urtero hamar bat espediente egiten ditugu abizenak euskalduntzeko. Azken urteetako joera kopuru horietan mantentzen da.

“Erraz egin nuela gogoratzen dut”

Eider Zubeltzu Loiarte herrianiarrak 2013. urtean euskaldundu zituen abizenak; ordura arte, Zubeltzu eta Loyarte izan ziren. “Senitarteko batek prozesu hori egin zuen; haren bitartez jakin nuen egitasmoaren berri”, oroitu du. Zubeltzuk hiru seme-alaba ditu gaur egun. Deiturak euskaratzea erabaki zuenean, lehenengoarekin haurdun zegoen. “Abizenak euskalduntzeko arrazoi nagusia izan zen nire seme-alabek ere, jaiotze-

rakoan, deiturak euskaratuta izatea”. Hernaniko bake epaitegira joan zen tramitea egitera, eta honako hau kontatu du: “Prozesua erraz egin nuela gogoratzen dut”.

Eider Zubeltzu Loiartek bezala, beste herritar ugari animatu izan dira deiturak euskal grafiara ekartzera, apelliduak abizentzera. Egun batzuk gorabehera, prozesuak hamar egunetik lau astera irauten du normalean. Buruntzaldea eskualdea osatzen duten sei

herrietan –Andoain, As-tigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen– bizi diren herritarrek aukera dute prozesu horri ekiteko. Herri horietako udalek euskarazko egitasmoak elkarrekin egiteko plan bat adostu zuten 2009-2010 ikasurtean; horretan jaso zuten, besteak beste, Apelliduak abizendu.

Euskaltzaindia eredu

Euskaltzaindiak osatutako

EODA Euskal Onomastikaren Datutegia hartzen da eredutzat abizenak euskalduntzeko irekitzen diren prozeduretan. Erakunde horrek plazaratu dituen datuak hiru atal nagusitan daude sailkatuta: deiturak, pertsona-izenak eta lekuak.

Abizenak euskal grafiara ekarri nahi dituen pertsonak datutegi hori kontsultatu behar du, deitura euskaraz nola idazten den jakin nahi izanez gero.

Aguirre

Ametzaga

Aramburu

Arrechea

Arregui

Azcárate

Bengochea

Bordaberri

Churrua

Echarri

Echeverria

Eguiguren

Escudero

Goicoechea

Gorrochategui

Gurruchaga

Iñarrregui

Iparraguirre

Izaguirre

Lascuain

Lerchundi

Mendivil

Michelena

Apelliduak abizendu

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **Errolda agiria** (Zure udaletxeko bulegoetan egingo dizute).
- **Jaiotzagiri literala** (Zure udalerriko Bake Epaitegian egingo dizute. Donostian erregistratuta bazaude, Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu (Kalkutako Teresa plaza z/g 943 00 07 30).

- **NANaren fotokopia**

Egin beharrekoak:

- **Agiriak herriko Bake Epaitegira eraman.**

Bertan egingo dizute aldaketa.
Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira:

Andoain: 943 30 08 20

Astigarraga: 943 33 52 36

Hernani: 943 55 28 36

Lasarte-Oria: 943 37 16 29

Urnieta: 943 00 83 45

Usurbil: 943 37 23 36

Informazio gehiago:

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskara-zerbitzuetan

Aguirre

Ametzaga

Aramburu

Arrechea

Arregi

Azcárate

Bengoetxea

Bordaberri

Txurruka

Etxarri

Etxeberria

Eguiguren

Escudero

Goikoetxea

Gorrotxategi

Gurrutxaga

Iñarrregi

Iparraguirre

Izaguirre

Lascuain

Lertxundi

Mendibil

Mixelena



Andoingo Udala
Goiko plaza, z/g
20140 Andoain



Astigarragako Udala
Foru enparantza
20115 Astigarraga



Hernaniko Udala
Gudarien plaza, 1
20115 Hernani



LASARTE-ORIA
Lasarte-Oriako Udala
Kale Nagusia, 22
20160 Lasarte-Oria



Urnieta Udala
San Juan plaza, z/g
20130 Urnieta



Usurbilgo Udala
Jose Martin Sagardia plaza
20170 Usurbil

Illunbe Goikoa: “Baimenen baitan ari gara lanean”

NOAUA! Urtebete pasa da konfinamendua ezarri zutenetik. Pandemiak zer nolako eragina izan du zuen landetxearen jardunean?

Illunbe Goikoa: Nekazal turismoan lan egiten dugunon testigantza berdintsua izango da ziur aski. Etapa desberdinak bizi izan ditugu urte osoan zehar, neurrien ondorioz, baina orokorrean oso lan gutxiarekin ibili gara. Udan zerbait gehiago igo zen, baina uztailerako eginda zeuden erreserbak apurka-apurka ezeztatzen joan ziren. Hala ere, hilabete horretan, azken momentuko erreserbak jaso genituen eta lan egin genuen; baita abuztuan ere. Hortik aurrera ezer ere ez. Erreserbak jasotzen genituen, baina neurriak aldatzen ziren eta herritik atera ezinean geratzen ginenez, erreserbak ezeztatzen ziren. Urtea udako erreserba horiekin egin dugu. Azken or-



“Guk etxe osoa alokatzen dugu, ez logelaka. Hala ere, dei pila bat jaso dugu”.

ILLUNBE GOIKOA

“Oso lan gutxiarekin ibili gara azken urte honetan”

duko erreserbak nahiago ditut, denborarekin eginiko erreserbekin inoiz ez baitakigu zer gertatuko den: neurriak aldatuko diren, ideia azken aldatuko duten...

Laguntzarik jaso al duzue?

Bai, eskaera batzuk egiteko aukera izan dugu. Eskaerak ez zakeenak eskatu ditugu eta jasotzen joan gara hilabete batzuetan. Ahal den bezala ari gara ikuspuntu horretatik, zerbait ateratzean eskaera egin eta tokatzen denean, jaso.

Aste Santua hortxe dago. Erreserbei dagokienez, igarri al da?

Bai, Euskaditik atera ezingo denez, EAEn mugitu nahi duen

jendeak deitu digu eta askoz ere erreserba gehiago jaso ditugu orain arte baino. Guk etxe osoa alokatzen dugu, ez logelaka, baina, hala ere, dei pila bat jaso dugu. Orokorrean, bikote gazteak haur txikiekin etortzen dira gure etxera, eta zentzu horretan ez dugu aldaketarik nabaritu. Agian lehen, familia nukleo horiek aitona-amonekin etortzen ziren, baina orain familia txikira mugatutako erreserbak dauzkagu neurrien ondorioz. Bai bezeroak eta bai gu baimenen baitan ari gara lanean, eta aldaketaren bat dagoenean neurrien kontu horretan, eragina zuzena da. Egunean eguneko egiten dugu, ez dago besterik. Ez gara etorkizunera proiektatzen, ez baitu ezertarako ere balio. Nire izaera horrela da, beti izan naiz egunean eguneko egiten duen horietakoa, eta gisa honetako egoeretan lasaia egoten naiz.

Troia: “Gurea ostalaritzarena baino okerragoa izan da”

NOAUA! Turismoarentzat ere, 2020a urte txarra izan zen. Zuei nola joan zitzaizuen?

Troia: Gure kasua ostalaritzarena baino okerragoa izan da. Konfinamenduan zehar itxita egon ginen, udan zerbait izan genuen, eta berriz konfinamendu perimenterekin bezerorik gabe geratu ginen. Nor joango da bere herri propioko nekazal-etxe batera? Ez dauka batere zentzurik. Desastre handia izan da, uda salba liteke, baina hortik aurrera ezer ez. Erreserba gutxi batzuk bagenituen udazkenerako, baina mugimendua erdira murriztuta, ezer gabe geratu ginen. Horrela ibili gara orain arte.

Laguntzarik jaso al duzue urte luze honetan?

Aukerak izan dira. Udaletxeak dirua eman digu pandemia dela eta diru-inbertsioa egin behar



“Aste Santurako dena beteta dugu eta Pazko Asterako erreserba batzuk baditugu”, Troia landetxeak adierazi digutenez.

TROIA LANDETxea

“Diru sarrearrak gabe dena gastua da oraintxe bertan. Hauxe da dagoena”

izan dugunean. Turismotik ere otsailean esleitu zituzten laguntzak, bi hilabeteko gastuak berdintzeko balio dutenak, bai-

na horixe. Beste laguntzaren bat ere eskaini zuten, baina guri ez ziguten eman ez genituelako beharrezko baldintzak betetzen.

Itxiera perimetrala ezabatu denetik, erreserbak asko igo al dira?

Itxiera perimetrala kendu orduko hasi zen jendea Aste

Santurako erreserbak egiteko deitzen. Lau pertsona baino gehiagoko taldeak ezin ditugu hartu, eta jangalan ere edukiera %50era murriztuta daukagu. Hala ere, jangalan distantziak mantentzeko aukera badago, ez dago neurri gehiago hartu beharrik.

Aste Santurako dena beteta daukagu eta Pazko Asterako erreserba batzuk baditugu. Orokorrean, jendea mugitzen ari da, baina guk neurriak zorrotz bete beharra daukagu eta ezin ditugu erreserba guztiak hartu. LABiren erabakien zain gaude baita ere, guk Aste Santurako erreserbak hartu baititugu, baina gero denak aurrera eramanez ahal izango diren edo ez, hori neurrien arabera izango da. Egunean eguneko egin behar dugu, eta tira, diru sarrearrak gabe dena gastua da oraintxe bertan. Hauxe da dagoena.

Karobi: “Jendea gogoz dago ateratzeko”

NOAUA! Urtebete pasa da konfinamendua ezarri zutenetik. Pandemiak zer nolako eragina izan du zuen jardunean?

Karobi Nekazal Etxea: Duela urtebete erabat moztu zen gure jarduera. Gero, udan mugimendu pixka bat izan zen abuztualdean, baina ezer gutxi. Hortik aurrera batere ez. Erabat moztu zen jarduera berriz ere uda pasatu ondoren eta, langileren bat edo beste izan zen, baina besterik ez.



“Kontuan hartu beharra dago Nafarroatik edota Zaragozatik jendeak ezin duela etorri. Bizkaia eta Araba aldetik mugituko da jendea batik bat”.

EAE barruko mugikortasuna ahalbidetu da. Erreserbei dagokienez, igoyerarik iragarri al duzue?

Orain Aste Santuari begira jendea deika hasi da. Batzuk hiru edo lau familiarentzat erreserba egiteko deitzen dute, eta hori ez da posible. Neurriak bete beharra daukate bai beraiek, bai eta guk geuk ere. Jendea gogoz dago taldean ateratzeko, baina

KAROBI LANDETXXEA

“Duela urtebete erabat moztu zen gure jarduera”

hori ez da posible. Hala ere, guk polizia lana ez dugu egin behar, nik uste nahiko helduak garela denok, eta erantzukizunez joka-

tu beharra daukagula. Oraindik egun batzuk falta dira Aste Santurako, eta asko azken momentuan ibiltzen dira, bikoteak edota haurrak dituzten familiak. Bestalde, kontuan hartu beharra dago Nafarroatik edota Zaragozatik adibidez jendeak ezin duela etorri. Bizkaia eta Araba aldetik mugituko da jendea batik

bat. Orokorrean jendea gogoz dago ateratzeko, baina ateratze hori ere buruarekin egin beharra dago eta neurriak errespetatuz.

Behin Aste Santua pasata, egorak hoberako joera hartuko duela uste al duzu?

Ez, Aste Santuko kontura mugatuko da nik uste. Gero berriztan zer gertatuko den ez dago jakiterik. Datuak ateratzen dituzte egunero, gaixo dauden kopurua eta egoeraren ustezko bilakaerarena, baina gero batek jakin. Nik uste udarako nolabait moldatuko garela txertaketa nola doan ikusita, baina ezin dugu ahaztu txertaketarekin ere ez dela dena amaituko. Errespetatu beharra dauzkagu neurriak, baina gerora ere denok aldatuko gara, eta bizimodua ere aldatuko da. Bost izarreko hotelek beti izango dituzte bezeroak, baina bestelako eskaintza batzuk, agian, desagertu egingo dira.

Ibarrola Txiki: “Asteotan jende asko aritu da deika”

NOAUA! Pandemiak zer nolako eragina izan du zuen landetxean? Jarduera erabat eten al zaizue?

Ibarrola Txiki: Martxotik udara bitarte horretan ia bezeroarik gabe egon ginen. Etxetik atera ezin zen garai horretan. Uda partean nahiko ondo egin genuen lan egoera nolakoa zen kontuan hartuta. Irailetik orain arte berriz, langile batzuk izan ditugu eta horiekin nolabait defendatzeko modua izan dugu. Ez dira bertako langileak, eta oraindik ere etxea hartuta daukate. Orduan, aste-buru bat hemen egiten dute eta hurrengo ez. Beraz, ez daukat margen handiegirik jende gehiago hartzeko.

Laguntzarik jaso al duzue?

Nekatur elkartetik dena nola egin behar dugun oso ondo azaltzen digute momentu oro.



“Nekatur elkartetik dena nola egin behar dugun oso ondo azaltzen digute momentu oro”, Ibarrola Txiki landetxeak adierazi digutenez.

IBARROLA TXIKI

“Irailetik langile batzuk izan ditugu, eta horiekin nolabait defendatzeko modua izan dugu”

Nolako kartelak jarri behar ditugun, bezeroei eskatu be-

harreko datuak neurriak betetzen direla ziurtatzeko eta abar. Zentzu horretan ez daukagu kexatzeko inolako arrazoirik. Zalantzen aurrean ere, telefonoz deitzeko aukera daukagu. Diru laguntzei dagokienez, pandemiaren hasieran eman zuten dirulaguntza hura jaso

genuen, 3.000 bat eurokoa, eta udaletxeak eman ziguna ere jaso genuen. Eskatera bat egin berri dugu gainera, orain esleituko duten 6.000 euroko laguntza jaso ahal izateko. Hori izan da guztia, momentuz gehiagorik ez.

Aste Santua gainean dugu. Erreserbei dagokienez, zerbait iragarri al duzue?

Etxe osoa nik daramat, eta San Jose astebururako zein Aste Santurako jendea deika ibili da erreserbak egiteko. Arabako jendeak deitu du batez ere data hauetan erreserbak egiteko, familia zuzeneko jendeak, batez ere.

Ez dugu inolako arazorik izan orain arte jendeak emandako datuekin, eta printzipioz lagun talderik ez dugu hartu eta familia txikiak baino ez zaizkigu tokatu langileez gain.

Atxega jauregia: “Ziurgabetasun batean bizi gara”

NOAUA! Urtebete pasa da konfinamendua ezarri zutenetik. Pandemiak zer nolako eragina izan du zuen hotelaren jardunean?

Eva, Atxega hotela: Guk zortea izan genuen, hotela ez genuelako urte osoan itxi. Pandemia heldu zenean, Cantabriako enpresa batekin geunden eta funtsezko jarduera gisa jarduteko baimena zuten. Horri esker, oinarritzko zerbitzuetarako hotel gisa izendatu gintuzten. Asteazken zehar hotela zabalik izan genuen baina asteburuetan itxi egin behar izaten genuen.

Uda hasieran, gauzak hobetzen hasi zirenean, asteburuetan zabaltzeko aukera izan genuen.

Lan munduko bezeroari eutsi zenioten baina aisialdikoa galdu zenuten, ezta?

Hori da.



Atxega Jauregia oinarritzko zerbitzuetarako hotel gisa izendatu zuten eta horri esker, hotela irekita egon da pandemia lehertu zenetik hona.

ATXEGA HOTELA

“Azken bi asteburuetan hotela beteta izan dugu”

Ostalaritzan eta beste arlo askotan laguntza instituzionalak

iragarri dituzte. Zuen sektorean egin al da antzeko deialdirik?

Orain hilabete laguntza deialdi bat egin zuten. Egin genuen eskaera baina oraindik ez dugu baieztapenik jaso. Bestetik, ni eta nire lankidea autonomoak gara eta 2019an baino gutxiago

fakturatzeko baduzu kuota zati bat itzultzen dizute. Laguntza hori jasotzen ari gara.

Herrietako itxiera perimetralak ezabatu dituzte eta orain EAEn barrena ibili gaitzake. Erreserba kopuruan igarriko zenuten, ezta?

Bai. Martxoaren 12ko asteburuan hotela beteta izan genuen. San Jose eguneko asteburua ere beteta egon da eta Aste Santurako aurreikuspenak onak dira.

Gauzak ez badira okertzen, hotela beteta izango duzue. Pozgarria izango da.

Pozgarria da baina ea zer gertatzen den... Ziurgabetasun batean bizi gara. Kutsatze mailak gora egiten badu, berriro itxialdia etorriko den beldur gara. Egoera ez da lanerako erraza.

Barazar: “San Joseko zubian beteta egon da”

NOAUA! Taberna eta jatetxea izateaz gain, Barazar landetxea ere bada. Nola joan zaizue pandemian zehar?

Asier, Barazar: Gure jarduerak hiru adar nagusi ditu: logelak, jatetxea eta taberna terrazekin.

Logelen kasuan, itxiera perimetrala ezabatu duten arte ez dugu bezerorik izan. Ekainean ireki genituen ateak berriaz, modu jarraia batean lehen konfinamendu hura behin amaituta. Ekainean bezero batzuk izan genituen, baina oso gutxi, %10 baino gutxiago. Uztailan garai ona bizi izan genuen, ia goraino beteta, bai eta abuztuan ere. Irailean beherakada nabaritu genuen, eta hortik aurrera jaisten joan zen hurrengo hilabeteetan behea jo arte. Azarotik aurrera ez genuen bezerorik izan, eta aurtengo urtea ere horrela hasi



“Bizkaiko eta Arabako jendea mugitzen ari da. Gure kasuan, batez ere bizkaitarrak dira hurbiltzen zaizkigunak”.

BARAZAR OSTATUA

“Tabernak oso ongi funtzionatu du terrazari eta eguraldi onari esker”

dugu. Martxoan atzeman dugu gorakada, hilaren 12tik aurrera

asteburuetan edukiera beteta. Langilerik ez dugu batere izan. Nahiko ohikoa zen lehen data hauetan, baina aurtun ez.

Egoerari buelta emateko, laguntzarik jaso al duzue instituzioen aldetik?

Laguntza bai izan dugu, bai-

na oso gutxi. Etxeko lau pertsonak egiten dugu lan eta kanpoko bik, eta ERTEn egon dira azken horiek orain arte. Jatetxean edukiera arazo gehiago izan ditugu tamainagatik, baina tabernak oso ongi funtzionatu du terrazari eta eguraldi onari esker.

Itxiera perimetrala ezabatu da eta Aste Santua gainean dugu. Erreserbei dagokienez, antzeman al duzue mugimendurik?

Jendea orain mugitzen hasi da. San Joseko astebukaeran beteta egon da landetxea, eta Aste Santurako ere oso itxura ona du. Erabat bete gabe dago momentuz, baina martxa honetan beteko dela uste dugu. Bizkaia eta Arabako jendea mugitzen ari da. Gure kasuan, batez ere bizkaitarrak dira hurbiltzen zaizkigunak.

Aginaga hotela: "Aste Santuari begira, bete samar dago"

NOAUA! Urtebete pasa da konfinamendua ezarri zutenetik. Pandemiak zer nolako eragina izan du zuen hotelaren jardunean?

Arantxa, Aginaga hotela: Iaz, urte osoan ez dakit bi hilabetez edo arituko ote ginen lanean ondo. Uztailean jendeak bazuen halako beldurra ateratzeko baina abuztuan ondo egin genuen lan. Urte hasieratik hona, asteen zehar langileak izan ditugu eta hortxe goaz, nola edo hala.

Zuen sektoreari begira, egin al da dirulaguntza deialdirik?

Guk hotel gisa momentuz ez dugu ezer jaso.

Langilegoan eragin zuzena izan du pandemiak, ezta?

Langileak bitan aritzen gara lanean, sagardotegian eta hotelean. Sagardotegian gehiago



"Orain arte langile jendea etorri izan zaigu hotelera". Neurri berriei esker, "aisialdiari lotutako bezeroak ere hasi zaizkigu hurbiltzen".

AGINAGA HOTELA

"Ea Aste Santua eta gero lanean jarraitzeko aukerarik dugun"

eragin digu eta ERTera jo behar izan dugu langileok.

Herrietako itxiera perimetralak ezabatu eta gero, EAEn barrena ibili gaitzke orain. Erreserba kopuruan igarriko zenuten, ezta?

Orain arte langile jendea etorri izan zaigu hotelera baina orain, neurri berriei esker, aisialdikoak ere hasi zaizkigu

etortzen. San Joseko astebururako erreserba dezente izan ditugu. Bertakoek eginak, Arabakoak eta Bizkaikoak.

Eta Aste Santuan, handia izango al da okupazio maila?

Estatu mailako erreserba asko genituen eginak eta horiek kartzelatzen joan dira baina bertako jendea hasi da deitzen. Une honetan bete samar dago.

Gauzak ez badira okertzen, hotela beteko zaizue.

%100ean beteko litzateke, bai. Baina soilik egun seinalatuetan.

Pozgarria izango da hotela beteta ikustea.

Izugarria da. Ea Aste Santua eta gero lanean jarraitzeko aukerarik dugun. Horren esperantza dugu.


PROFILA:
2 hilabeteko esperientzia
Begurale titulua izatea / Zuzendari titulua
EGA edo baliokidea den agiria
Sexu delitua egiteagatik aurrekari
penalak ez dituela egiaztatzen
duen ziurtagiria.
Usurbildarrek lehentasuna

Interesatuak:
Curriculum-ak ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkatea@noaua.eus

Curriculum-a bidaltzeko azken eguna: **apiriliak 24**

Handitik txiki

Makila-zomorro hauek neurriaren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.



Zein arraio!

Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan. Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

- Errepikatuta dago baina ez da ugariena
- Ipurdirik ez du agerian
- Ez du eztenik, ezta tronparik ere
- Ezin du hegan egin
- Sei zango ditu
- Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten
- Oso bista aparta dela esan liteke.



itzala


Zein da zomorro itsusi honen itzal zuzena?

Oinutsik


Ehunzango gaixo honek oinetakoak falta ditu. Marraztuko al zenizkioke katuska polit-politak, lokatzetan sartzeko?



Labirintoa




Lagundu Pelloziriri zomorro lotsagabe horri ihes egiten. Honokoak dira jarraitu beharreko pausoak: 1 eskuak garbitu, 2 maskara erabili, distantzia errespetatu, txertoa jarri. Gogoratu pausoen segida errespetatu egin behar dela eta laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.




Ostiralak badu beste izen bat: BARIKU. Osa itzazu lauki zuriak hitz hori osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, A, R, I, K eta U). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Sudokua



ZazpiKoa

Aurkitu bi zomorroen arteko 7 aldeak.



“Tranpaldo irekia ekimenaren bitartez, herritar guztiei dantzatzeko aukera eskaini nahi diegu”

ORBELDI DANTZA TALDEAK SAIO IREKI BAT IRAGARRI DU APIRILAREN 24RAKO

Dantza Eguna ospatzeko aukerarik ez zen izan iazkoan. Horren ordez, herritarrek etxean eginiko bideoak zabaltu zituzten sare sozialetan. Pandemiak pandemia, aurten plazara itzuliko dira dantzariak. Orbeldi Dantza Taldearen asmoa behintzat, hori da. Osasun neurri guztiak errespetatuz, hainbat ekitaldi iragarri dituzte.

Herriari zuzendutako egitaraua antolatzeaz gain, herritar guztiei eskaini nahi zaie dantza egiteko aukera. Eta horretarako *Tranpaldo irekia* izeneko ikuskizuna sortu dute propio. “Herritar guztiei dantzatzeko aukera eman nahi diegu, *mikrofono irekia* emanaldien estiloan”.

Apirilaren 24an larunbata, ‘Tranpaldo irekia’ Artzabalen
Apirilaren 24an egingo da *Tranpaldo irekia*, baina proposamenak aurkezteko aukera



IX. Dantza Egunaren bueltan hainbat ekitaldi iragarri dituzte apirilaren 24ko astebururako. Argazkia 2019koa da.

APIRILAK 24 LARUNBATA

“Gustuko dantza estiloan, koreografia bat aurkezteko aukera izango da Artzabalen, ‘Tranpaldo irekia’ saioan”

dagoeneko zabalik da. “Gehien-
ez ere 6 lagunek taldetan,

gehien gustatzen zaien dantza estiloan koreografia bat aurkezteko aukera izango dute. Hau da, etxean edo lagunartean landutakoa, jendaurrean eskaintzeko modua izango da”.

Izena eman behar da aurretik
Interesa duten guztiek, aurre-

tik izena eman beharko dute usurbildantzan@gmail.com e-posta helbidera idatzita, “taldearen izena eta partehartzailen izen-abizenak zehaztuz”.

Orbelditik nabarmendu dutenez, babes neurri guztiak errespetatuz burutuko da *Tranpaldo irekia*.

Aurtengo Dantza Eguna ekitaldiz josita iritsiko da

Apirilaren 24an ospatuko da IX. Dantza Eguna, baina aurretik eta ondoren ekitaldi gehiago ere izango dira. Apirilaren 16ko NOAUA!n xehetasun gehiago eskainiko ditugu. Gaurko egunez, hauxe da Orbeldi Dantza Taldeak aurreratu dezakeena.

Apirilak 23 ostirala
“Dantza eta generoa” hitzaldia, Oier Araolazaren eskutik
Mikel Laboa EHU Katedraren bitartez doktore-tesia egin berri du: “Genero identitatea euskal dantza tradizionalaren erai-kuntzan”.

Oier Araolazaren hitzaldia apirilaren 23an ostirala izango da. 19:00etan, Sutegin.

Apirilak 24 larunbata
“Tranpaldo irekia” emanaldia, 16:30ean Artzabalen

“Herri guztiari dantzatzeko aukera eman nahi diogu, *mikrofono irekia* emanaldien estiloan”, Orbeldikoek aditzera eman dutenez. 2013an edo lehenago jaiotakoei zuzendua dago eta gehienez ere sei lagunek taldetan aritu beharko dute. “Norberari gehien gustatzen zaion dantza estiloan koreografia bat aurkezteko oholtza eskainiko dugu”. Aurretik izena eman beharko da usurbildantzan@gmail.com helbidera idatzita. Emailean taldearen izena eta partehartzailen izen-abizenak zehaztu behar dira.

Apirilak 24 larunbata
Orbeldiren dantza ikuskizuna, 19:30ean Oiardo kiroldegian

Urtero legez, “herriko musikariek batera ikuskizun bat eskainiko dugu. Aurten, Sorotan Beleren musika oinarri hartuta 50 minutuko emanaldia osatuko dugu”, Orbeldiko kideek aditzera eman dutenez. Apirilaren 24an larunbata, Oiardo kiroldegian. Astebete lehenago entsegu irekia egingo dute: apirilaren 17an Aginagako frontoian.

Apirilak 25 igandea
‘Mutu’ ikuskizuna Sutegin
Apirilaren 25ean igandea, Miriam Perez Cazabonen konpainia



Miriam Perez Cazabonen konpainiak ‘Mutu’ ikuskizuna eskainiko du apirilaren 25ean.

niak ‘Mutu’ ikuskizuna eskainiko du. Arratsaldeko 18:00etan Sutegin.

Ekitaldi hauetarako sarrerak usurbilkultura.eus plataformatik eskuratu ahal izango dira.



Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolak kontzertua eskaini zuten Sutegin ostiral iluntzean. Udalak antolatutako kontzertua izan zen eta dozenaka pertsona bertaratu ziren auditorioan.



Oscar Rodriguez organo-jotzaileak eta Marco Cubilla tronpeta-jotzaileak kontzertua eskaini zuten larunbatean Salbatore Elizan. Kontzertua irudi bidez eskaini zuten, organoaren bi alboetan jarritako bideo kameren bidez.



'Erik eta Win' ikuskizunak oso harrera beroa izan zuen Sutegin bertaratu ziren ikusleen artean. Sarrera denak agortu ziren. Kantugaiak ugari izan ziren: botere harremanak, genero kontuak, gizontasuna, feminismoa...



Aurreko igandean, 30 talde lehiatu ziren Oriaren Jaitsieran. Hondarribiak gizonezkoen arteko estropada irabazi zuen eta Donostia Arraun Lagunak taldeak emakumezkoena. Argazkia: Orio Arraun Elkarte.



DARDARA

MARINA LAMERON BERRI TARRAKEN aktore bira filmatutako pertsona dokumentala

DIRIGITUA: MARINA LAMERON. EKOIZLEA: ITZIAR GARCIA ZUBURI

ELABORATZAILEAK: PABLO IRABURU, IÑIGO OTERO, MARINA LAMERON. GUTURRIK: MIGUEL GARCIA IRABURU

EDIZIOAK: GARAIZ ERIBIRO, IÑIGO ETXEBERRIA, OIHANE IRAPITE, ITZIAR GARCIA ZUBURI, MARINA LAMERON, MIGUEL SANTOS

BOGATZAILEAK: DAVID GARCIA, MADO BARBER, MIGUELLO MOLINA, ALVARO GARCIA ECHEVERRIA, EYMARO UBERSTADEN

BOGATZAILEAK: ALVARO GARCIA ECHEVERRIA, GABRIELA DEL ROSARIO ROS DONALDZ (INGESTUDIOS)

BOGATZAILEAK: ARINA COMUNICACIÓN ETA TRALAPART, ALVARO GARCIA ECHEVERRIA, IÑIGO OTERO

EDIZIO MEDIA: ATERA FILMS

Apirilak 18, igandea

DARDARA

Dokumentalaren emanaldia

Ordua: 19:00.

Non: Sutegiko auditorioan

Nori zuzendua: Gazte eta helduei

sarrerak: aldeztu aurretik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.

Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noqua

Usurbilgo Udalak

SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2021

Apirilak 17, LARUNBATA


GARBITASUNA SAGARDOAREN KALITATEAREN
LAGUN. SAGARDOA EGURREZKO ONTZIETAN.
SAGARDOAREN HISTORIA BAT, ZER IKASTEKO?.

Egoitz Zapiain eta Jakoba Errekondo

ORDUTEGIA: 9:00tatik 13:00tara Potxoenean



SARRERAK: aldez aurretik
usurbilkultura.eus plataforman eta
alkartasuna.eus web orrian.



Udaleku ibiltarirako sukaldariak eta begiraleak behar ditu UEMAk

Salto! izeneko udaleku ibiltaria ekainaren 28tik uztailaren 4ra egingo da. Zumaian abiatu eta Lekeitio amaituko da aurtengo martxa. Begiraleak eta sukaldariak behar direnez, UEMAk lan deialdi bat luzatu du. Martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira curriculumak hezkuntza@uema.eus helbidera.

Curriculum guztiak jaso eta gero, eskaeren artean hautaketa bat egingo da eta apirilaren 15erako jakinaraziko zaie erantzuna interesatuei.



Martxoaren 31 baino lehen bidali behar dira curriculumak.

Erraustegiaren aurkako martxa bat iragarri dute

“Zabor nahikorik ez eta orain hondakin industrialak ere erre nahi dituzte”, Erraustetaren Aurkako Mugimendua sare sozialen bitartez salatu duenez. Larunbat honetarako martxa bat iragarri dute.

Martxoak 27 larunbata

Erraustetaren Aurkako Mugimendua martxa goizeko 11:00etan abiatuko da, Lasarte-Oriako Okendo Plazatik. Eta 12:00etan ekitaldi bat egingo dute erraustegiaren atarian.

Udarregi ikastolako LH3ko ikasleek 70 haritz landatu dituzte Andatzan

Udarregi ikastolako LH3ko ikasleek 70 haritz landatu dituzte Andatzan, Irigain inguruan, iaz moztutako baso batean. Eskolako Agenda30 programaren barruan egin dute, zeinak iraunkortasuna sustatzea duen helburu. Urtero gai bat izaten dute ardatz: aurtengoa, basoak.

Lauko taldeetan aritu ziren haritzak landatzen, udaleko ingurumen zinegotziarekin eta lorezainarekin batera. Haritzak landatzearekin batera, egun pasa egin zuten, eta, azkenik, oinez itzuli ziren ikastolara.



Aurten, basoa da Eskolako Agenda30 programaren ardatz nagusia.

ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA **943 36 10 79**

Martxoaren 28an amaituko da Ziortzaren kanpaldian izena emateko epea

2020an kanpaldia bertan behera utzi bazuten ere, aurtengoa egiteko asmotan dira Ziortza Gazte Elkarteko kideak. Datak aurreko astean jakinarazi zituzten: uztailaren 6tik 19ra DBH3 eta DBH4ko ikasleen txanda egingo da, eta uztailaren 19tik 30era DBH1 eta DBH2koena. Aurre izen-ematea egin daiteke jada, hilaren 28ra bitartean ziortzakanpaldia@gmail.com helbide elektronikora gaztearen izen-abizenak eta zein mailatan dagoen adierazita.

Joan zen urtean, kanpaldia bertan behera uztea erabaki zuten pandemia egoera ikusita. Errioxako herri txiki batean egin ohi dute kanpaldia, eta adineko jendez osatuta dago Peñaloscintos, batik bat. Beldur nagusi horri, gazteen



Datak aurreko astean jakinarazi zituzten: uztailaren 6tik 19ra DBH3 eta DBH4ko ikasleen txanda izango da. Uztailaren 19tik 30era, DBH1 eta DBH2koena.

EPEA: MARTXOAK 28

Aurre izen-ematea emailaz egin daiteke ondoko helbidera idatziz:
ziortzakanpaldia@gmail.com

arteko kutsatzearen beldurra gehitu zitzaion, eta horiek izan

ziren kanpaldia bertan behera uzteko arrazoi nagusiak. Horixe kontatu zioten Ziortza Gazte Elkarteko kideek NOAUA aldizkariari duela zenbait hila-bete.

Aurtengoa, egoerak horberako joera duela ikusita, kanpaldiarekin printzipioz arrera jarraitzea erabaki dute.

Udajolasen begirale edo zuzendari aritzeko lan-poltsa

NOAUA! Kultur Elkartek antolatutako Udajolas ekimenerako zuzendari eta begiraleen lan-poltsa osatu nahi da.

Baldintzak:

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko, hauek dira bete beharreko baldintzak:

- 2 hilabeteko esperientzia.
- Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua izatea.
- EGA edo baliokidea den agiria.
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Usurbildarrek izango dute lehentasuna.

Epea: apirilak 24

Curriculum-ak eta agiriak, apirilaren 24a baino lehen helbide honetara bidali: elkartea@noaua.eus

Antzerki ikastaroa gaztetxoentzat

Ixabel Agirresarobek eta Andrea Arrutik antzerki ikastaroa eskainiko dute martxoaren 29tik apirilaren 11ra.

Astelehenetik ostiralerara, goizeko 11:00etatik 12:30era. Eta arratsaldean 17:00etatik 18:30era klase libreak eskainiko dituzte, hau da, bakoitzak nahi dituen klaseetara joateko aukera izango du.

Harremanetarako

- 675712383 (Ixabel).
- 650614380 (Andrea).

Plazan Bazan, 14/15 orrialdeetako soluzioak

Handitik txiki
Makila-zomorra hauek neurraren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 8.

Zein arraiot!
Maripurtzil bihurtu horiek zomorroak bot sartu nahi diren logan bati patritan. Esan ezazu zein duzun aukeratu duen:
• Errespektatuta dago baina ez du upariora • Ipurdirik ez du agerian • Ez du eztenik, ezta tropaunik ere • Egin du hegan egin • Sei zango ditu • Aha zabalaren hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten • Oso bista aparta dela esan liteke.

itzala
Zein da zomorro itxusi honen itzal zuzena?

Oinutsik
Elhunzango gaixo hauek einetakoak falta ditu. Marraztuko al zenbakioak katuksa polti-politik, lokatzetan sartzeko?

Labirintoa
Lagundu Pellozini zomorro lotsagabe horri ilhes egiten. Honakoa dira jarraitu beharreko pausoak: 1 eskuak garbitu, 2 maskara erabili, distantzia errespetatu, txertoa jarri. Gogoratu pausoen segida errespetatu egin behar dela eta laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginaz, baina inoiz ez diagonalean.

Sudokua
Ostiralak badi beste izen bat: BAREKU. Osa itzazu lauki zuriak hitz hori osatzeko duten letrak kontuan hartuta (B, A, R, I, K eta U). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta oro bakoitzeko.

Zazpikoa
Aurkitu bi zomorroen arteko 7 aldeak.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trastelekua, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garage bat alokairuan, 22m²

Santuenean. 671547567.

Volkswagen Caravelle, 2011koa, salgai. 677642776.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dabilen pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo

interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagarria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagarria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Familia kargarik ez duen mutil arduratsua, helduen zaintza lanetan aritzeko. Egun osoz edo orduka. Berehalako disponibilitatea. 697820143

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

Lan bila nabil. Orduka, externa... Umeak edo helduak zaintzeko ala garbiketa lanak egiteko. Lan baimena dut: 643967056.

Lan bila nabil. Gaztea, ostalaritza ikastaroa egina dut. Lan baimena dut: 602531759.

Helduak zaintzen esperientzia duen neska bat naiz eta lan bila nabil, orduka, esterna edo interna moduan. 603315126.

Emakume bat eskaintzen da umeak, adineko pertsonak eta etxeko lanak egiteko. Informee-kin 658706345 / 602568090.

24 urteko neska gaztea. Arratsaldean umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta

lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

BESTELAKOAK

Bose markako 2 bafle (Studio-craft 300ST) salgai. 80 euro. 3 biakoak, 15-60W. 85dB sentibiltasuna. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Technics SB-C57 bi bafle salgai. 80 euro. 3 biakoak, 80W. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

Bi logetaketako "zubi armairuak" eta habia-ohak ditugu. Egogorra olean. Interesatua bazaude deitu 649482775. Merke edo oparitzeko prest.

Salgai termomix mod TM 31 oso berria 618094968

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00.

**Zorionak Maddi!**

Muxu handi bat etxekoan partez. Asko maite zaitugu!

**Zorionak Markel!**

10 urte borobil aurren. Muxu potolo bat etxekoan partez! Eta hasi belarriak prestatzen tiraizua jasotzeko!

**Zorionak Eñaut!**

Gure etxeko terremotoak 3 urte beteko ditu martxoaren 23an. Ondo pasa!

Heriotzak**Gorka Zubillaga****Iturralde**

Martxoaren 21ean hil zen, 42 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 25 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 26 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 27 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Astelehena 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteartea 30 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteazkena 31 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 01 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Ostirala 02 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 04 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda martxoa

25 osteguna

- "Zaldibar. Zona cero" liburuaren aurkezpena Sutegin. Ahoztar Zelaieta kazetariaren hitzaldia 18:30ean hasiko da.

27 larunbata

- Mundualdia 2021. 17:00etan Migrazioari maskarak erauzten ikus-entzunezkoaren proiektzioa Sutegin. 19:00etan aitortza ekitaldia frontoian.

28 igandea

- Korrikari gorazarre. 12:00etan frontoian. Sarrera kopurua mugatua da. Informazioa Etumeta AEK euskaltegian.
- Mundualdia 2021. 17:00etan Migrazioari maskarak erauzten ikus-entzunezkoaren proiektzioa Sutegin.

Larunbat honetan ospatuko da 'Mundualdia'

Iaz ez zen Mundualdirik izan, Covid-19a tarteko. Aurten egin egingo da, baina ezohiko formatuan. Larunbat honetarako prestatu duten egitarauak bi hitzordu izango ditu eta biak elkarlotuta egongo dira.

Martxoak 27 larunbata

- 17:00etan Sutegin, Migrazioari maskarak erauzten dokumentala. Sarrerak agortuta.
- Proiektzioaren amaieran, aitortza-ekitaldia frontoian.
- Izen-ematea usurbilkultura.eus webgunearen bidez egingo da.



Aitortza ekitaldi bat egingo da larunbat arratsaldean frontoian.

Martxoak 28 igandea

- 17:00etan Sutegin, Migrazioari maskarak erauzten dokumentala. Sarrerak usurbilkultura.eus webgunearen bidez.

Korrikaren faltan, Korrika omentzeko ekitaldia egingo da igandean frontoian

Aurten ez da Korrikarik izango. AEK-k hala ere, egungo osasun krisialdira egokituriko ekitaldiak antolatu ditu euskaltegiak dituen herrietan. Martxoaren 28an, Korrikaren omenez.

Etumeta AEK euskaltegiak prestatuta lan betean dira. Herrietako ekitaldi guztiak eguerdiko 12:00etan hasiko dira,

antzeko formatuan ospatuko dira eta iraupen beretsua izango dute. Formatu erraldoidun jaialdiak izan ohi dituen osagai hainbat izango ditu Usurbilgo frontoian egitekoa den ekitaldiak; tartean, ez omen da faltako Korrikaren lekukoak gordean eraman ohi duen mezuaren irakurketa.

Datozenak

"Txerto emozionala" hitzaldia, Nerea Mendizabalen eskutik

Nerea Mendizabal psikopedagogoaren hitzaldietan konfiantza, poza, itxaropena eta maitasuna dira hizpide nagusi. Balio horiek ez galtzeko eta behar bezala pizteko giltzak ere eskaintzen ditu. Hitz-Ahok hainbat hitzaldi antolatu ditu dagoeneko. Azkena apirilaren 26an izango da.

Hitzaldiak, online

Aurrekoak bezala, hitzaldia online emango dute. Pantailatik jarraitu ahal izateko zehaztasun guztiak esteka honetan topatuko dituzue: udarregi.eus/eu/gurasoak/guraso-eskola

Gaztelaniaz

- Apirilak 26 astelehena, arratsaldeko 17:30ean. Gaztelaniaz.
- Antolatzailea: Hitz-Aho.



Nerea Mendizabalen hitzaldia 'online' izango da.



ERAMATEKO!!!

· EGUNEKO MENUA
· KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39



Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



0 eta 3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZA
2019, 2020 eta 2021 urteetan jaioetako hurrei zuzenduta

• **ATE IREKIEN EGUNA:**
Apirilaren 14an, asteazkena
17:00etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz.

• **MATRIKULA EPEA:** Apirilaren 12tik 30era
INFORMAZIOA ETA HITZORDUA: 943 374061 telefonoan
8:30etik 12:00etara
edo haureskola@udarregi.eus-en

Helbidea: Ugarte, 9 20170 USURBIL

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu

NOKA
ikastaro praktikoa

Ordu eta erdiko 6 saio

Bi talde, aukeran:

Ostegunetan, 18:00etatik aurrera
Larunbatetan, 10:00etatik aurrera

16 urtetik gorako
herritarrentzat
Potxoenean
Apirilaren 15ean eta
17an hasita



Ta hi,
bahator?

Idatzi
ezan mezu bat
itzultzailea@usurbil.eus
helbidera

Joango
ez naun ba! Zer egin behar
dun izena emateko?

Hantxe
izango gaitun!





JATORRIA

Urbilen iraunkortasun proiektua aurkezten dizugu.

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuetan
oinarritutako plana.

Aldaketa handien abiapuntua gara, ezagutu gure ekimenak hemen:
www.urbil.es/eu/jatorria